



Herriek Bere Eskola

Herriek Bere Eskola – EHBE – Nazioarteko informazio buletina
34. alea | 2008ko Azaroa/B |
nazioartea@euskaleskola.org | <http://www.euskaleskola.org/>

BOLOGNAREN AURKAKO MOBILIZAZIOAK UGARITUZ DOAZ

Herriek Bere Eskolaren alde hau ez da ale berezi bat. Baina ia-ia. Azkeneko aste hauetan mobilizazio ugari egiten ari dira han-hemenka Bologna Prozesuaren aurka. Eta lehen ezkerreko mugimendu batzuek kritikatzeko zutena mobilizazio nagusi bat bilakatu da, batez ere hainbat sektoreen sarrerarekin. Medioetan ere entzun da informatikariak eginiko greba, langileak ere bildu dituen eta milaka webgune blokeatu espainiar estatuan. Eta Italian Gelmini legearekin dauden mobilizazioak edo Alemanian egonikoak ere gehitu behar zaizkio.

Borroka hauetan batez ere Kataluniako ikasleek izandako jarrerak dira txalogarriak: blokeoak, okupazioak eta errektoreak eztabaida publikoetan parte har dezaten derrigortuz.

Espainiar estatutik hasiko gara errepasso bat eginez. Salamancan mobilizazio handiak egon dira, 7.000 ikasleko manifestaldi bat barne. Madrilen Sindicato de Estudiantes mobilizazioa deitzen zuten egunean eurek 100 bat ikasle biltzen zituzten, eta atzetik beste pankarta batekin 10.000tik gora (20.000 antolatzaileen arabera). Sevillan 200 bat ikasle errektoretza okupatu zuten. Murtzia edo Badajozen ere mobilizazioak egon dira.

Herralde Katalanetan, Valentziako Unibertsitatea blokeatu eta okupatu zuten milaka ikasle eta hilabete bat igarota oraindik hor daude. Berdina gertatu da Bartzelonan, UAB eta UBko hainbat fakultatetan. Manifestaldietan milaka eta milaka pertsonak hartu zuten parte baita poliziaren oldarraldia jaso ere, atxilotu batekin. Galizan ere mobilizazioak egon dira, eta atxilotuak egon ziren Vigon.

Irlandan 12.000 manifestari egon ziren hezkuntzako aurrekontuaren murrizketaren aurka. Italiako kasuari aurreko alean informazio zabala eman genion, baina hiru aste hauetan ez dira geldirik egon eta hainbat deialdi daude hurrengo asterako. Mobilizazioak ugaritu dira Portugalen ere, irakasleen aldetik batez ere. Azaroaren 12an greba eta mobilizazio eguna egon zen Alemanian: milaka ikasle atera ziren kalera, 20.000 arte Hamburgenean.

Guztia biltzea zaila denez gero hona hemen hainbat lotura interesgarri, bideo, irudi eta testu gehiago lortu ahal izateko:

Informazio gehiagorako:

<http://barcelona.indymedia.org/?category=ensenyament>

<http://www.youtube.com/watch?v=wsPs5LW8hog&feature=channel>

<http://especialbolonya.wordpress.com/audiovisual/> Bideo ugari

<http://ie.indymedia.org/article/89683>

<http://barcelona.indymedia.org/newswire/display/355670/index.php>

<http://www.tancadaalacentral.blogspot.com/>

http://www.cadenaser.com/sociedad/audios/plan-bolonia-destruccion-universidad-publica/csrsrpor/20081124csrsrsoc_3/Aes/

<http://barcelona.indymedia.org/newswire/display/356408/index.php>

<http://de.youtube.com/watch?v=FKfk1dKWS9U>

<http://www.schulaction.org/>

<http://www.kaosenlared.net/noticia/revuelta-estudiantil-contrabologna>

<http://emancipating-education-for-all.org/>

<http://de.youtube.com/watch?v=Rfd2Osbw6lc>

<http://www.kaosenlared.net/especial/stop-lou-bolonia>

<http://roma.indymedia.org/node/5570> Bideo ugari

<http://movimiento.noabolonia.org/>

<http://www.sepc.cat>

<http://www.agir-galiza.org>

<http://anomalía.blogspot.com/>

<http://firgoa.usc.es/drupal/node/39031>

BOLIVIAKO CURRICULUM BERRIA

Bolivian Curriculum berria egin dute eta kosmobisio andino-amazonikoa eta produktibitatea izango dira ardatzak. Curriculum egiteko 700 bat irakasle, gurasok eta herri mugimenduetako kidek parte hartu zuten. 2009an izango da curriculum berria eskoletan aplikagarri. 2006tik lanean dabilta curriculum berri honekin eta orain bukaera ematen ari zaio.

Curriculum berri honetan Geografia ikasgaiak izen berri bat izango du: Bizitza, Lurra eta Lurralde. Filosofiaren baitan kosmobisio andino-amazonikoa sartuko dute, orain arte mendebaldeko filosofia baino ez zelako barneratzen.

100 bat hezkuntza eragile eta adituren artean proposamenak garatzen joan dira. Hainbat jatorrizko herrietako jakintsuek berezko jakintza curriculumean sartzeko proposamena egin zuten. Irakasle ezberdinek hori guztia nola irakatsi landu dute. Eta pedagogo ezberdinen artean metodologian egon beharreko aldaketak proposatu dituzte.

Kosmobisioari dagokionez estatu monokultural batekin bukatzea da helburua. Gaur egungo eredia kolonialistotik eratorrikoa denez ez ditu jatorrizko herriak aintzat hartzen. Ikasleei gainera jakintza horietan oinarrituta praktika produktiboak garatzeko aukera emango zaie. Lanbide Eskolen garapena emango da curriculum berriarekin. Adibide gisa hau ematen dute: Titicaca lakuaren inguruan formazio tekniko pizsikulturaren emango da, eta Amazonian gaztainaren eraldaketaren inguruan.

Literaturan, adibidez, ahozko iturrien tradizioa ere sartuko da, hori guztia galdu ez dadin. Edo bestelako adibideak ere ematen dira: Andean zerbait berezia jaten bada horren inguruko jakintza ere sartuko da bertako curriculumean. Irakasleek gainera formakuntza jasoko dute aldaketak aplikatu ahal izateko. Jada lanean daudenek 2009tik aurrera kurtsuak izango dituzte.

Informazio gehiagorako:

http://www.lpp-uerj.net/olped/cined/banco/exibir_noticias.asp?codnoticias=29322

KONTROL SOZIALAREKO NEURRIAK FRANTZIAR ESTATUAN

Frantziar estatuak onartu dituen neurri berriak kontrol sozialerako bidea irekitzen dute. Frantziar estatuak gaur egun 37 fitxero ezberdin ditu hiritarren kontrola egin ahalizateko, batez ere judizialak eta polizialak. Bertan milaka herritarren datuak sartu dituzte. Orain, ordea, bi berri sortzeko ideia du Sarkozyk: Edvige eta Élèves. Lehenengoak “etorkizunean ordena publikoa hautsi dezaketen” pertsonen datuak bilduko ditu. Bigarrenak Lehen Hezkuntzako ikasleen hainbat datu.

Udan sortu zuen gobernuak, dekretu bidez, Edvige fitxategia. Informatika eta Askatasunen Batzorde Nazionalaren gomendioz publiko egitea erabaki zuten. Bertan lan sindikal, politiko, ekonomiko edo erlijioso bete duen, betetzen duen edo bete dezakeen datuak bilduko dira. Horretaz gain 13 urtetik gora etorkizunean ordena publikoa hautsi dezaketen pertsonak eta erakundeak sartuko dituzte. Poliziak kontraespioitzarako erabiltzen dituzten irizpideen arabera sartuko dituzte datuak: datu pertsonalak, itxura fisikoa, argazkiak, dokumentazioa, jabetzak, ibilgailuen matrikulak, historia judiziala eta “batzuetan” jatorri etnikoa, iritzi politikoak, iritzi filosofiko eta erlijiosoak, afiliazio sindikala, sexu-orientazioa eta osasunari buruzko informazioa. Atzera bota dezaten eskatzeko mobilizazioak egon direnez irailean gobernuak bere dekretua aldatzen zuela esna zuen. Sexu-orientazioa eta osasunari buruzko datuak kendu dituzte eta izena aldatu: EDVIRSP.

Dekretuak, hala ere, 13 urtetik beherako biztanleak kanpo uzten ditu. Horretarako sortu dute Élèves data-basea. Helburua haur eta lehen hezkuntzako eskolen kudeaketa erraztea omen da, hau da, 3 urtetik 11 urterarte herritarrak. Dekretu hau ez dute egin barne mailan, baizik eta Hezkuntza Ministeriotik eta gutun gisa. Eskoletako zuzendariak ikasle bakoitzaren jaioterria, ama-hizkuntza eta jatorrizko kultura bilduko dira. Baina horretaz gain konfidentzialak izan beharko zatekeen zerbait ere agertzen da: eskola zailtasunak, integrazio ikasgeletan parte hartu izana, espedienteak edo absentismoa ere. Horretaz gain jarraipen psikologiko edo osasunari loturikoa izan ote duten ere zehaztu beharko dute. Guzti honen atzean, ordea, badago beste helburu bat: fitxategi horiek poliziaren esku ere egon dira, batez ere paperik gabekoen seme-alaben kontrolari dagokionez. Irakasleen presioak horri loturiko gai batzuk fitxategitik kanpo geratzea lortu du. Hala ere Lehen Hezkuntzako irakasleei diru gehigarri bat ematen zaie fitxa hauek bete eta berritzearen.

Informazio gehiagorako:

<http://diagonalperiodico.net/spip.php?article6735>